

Lide Egizala Urteaga

A maila • Aipamena

Lide naiz, 17 urteko neska Lazkaotarra. Ez dut betidanik izan idazteko grina, baina konturatu naiz norbera ezagutzeko tresna paregabea dela, gauzak birpentsatzeko, gure barruko kezkak kanpora ateratzeko... hau da, terapia bat izan daitekeela.

Ez da erraza pentsatzen ari garen hori orri zuri baten gainean idaztea, ezta besteei zure barnean bizitzen ari zarena ulertaraztea ere.

Idatzi ditudan poemen gaia "denbora" da, hau, oso erraz esaten den hitza da, baina uste baino konplexuagoa da. Ez dirudien arren, gure egunerokotasunean denboraren baitan bizi gara, ero moduan ibiltzen gara ordulariari begira. Ez gara ulertzeko batere errazak, inoiz ez gaude konforme, batzuetan denbora falta zaigula iruditzen zaigu, beste batzuetan aldiz soberan daukagula.

Poema hauetan, nire ikuspuntua adierazi dut, bizitzako momentu eta bizipen hoberenak ez ditu denborak kontrolatzen, garrantzitsuena, gure ingurua baloratzea eta unean unekoa bizitzea da, datorrena datorrela ere adorez aurre eginez.ni.



TIK-TAK

Erraz esaten den hitza,
kontrolatzen du gure bizitza
egunerokoa baldintzatuz...
batzuetan luze eta arrotza
besteetan berriz, hain motza.

Ziklo amaigabea, baina
Nola lortu hori aldatzea?
Norberaren baitan omen dago irtenbidea.
Gure buruari esanez:
"Momentua bizi eta bakoitzak egin dezala
bere bidea"

Baina dena bukatzen da ordea
eta hori da onartu nahi ez dugun bizitzaren
legea.

Ordulariari begira egunero, momentuoro,
aldioro,
bera da gure bizitzaren jaun eta jabe,
baimenik eskatu gabe bilakatu da geure
habe,

laberinto amaigabe honetako ezinbesteko
klabe

ba al da hori sendatzeko nahiko jarabe?
Hau da kalamidadea...
bere menpe bizi behar
kontrarelojea korrika, ezinean, gure
ametsi segika
izango al da noizbait atsedenik?
Heriotzaren ostean, apika,
baina ezin horren zain egon,
horren beldurrez bizi,
barruko kezkak bilakatuz pizti,
hainbeste aprobetxatu beharreko bizitza ez
galtzen utzi!

Lehen zena gaueko amesgaizto
orain bihurtu da benetako arazo,
itzuli nahi dut lehengo garaietara
erabakiak gurasoen babesean hartzen
nituen une haietara,
denbora!... Nire etsaia bihurtu zara!
Urteak pasaz heltzen omen goaz
Baina zer da heldu izatea?

Bizitzan benetan inporta duten gauzez
ahaztea?
Laguntasuna eta solidaritatea
enpatia eta gizarteko mugak hausten
joatea.
Txikitan "heldu" izan nahi eta heldutan
"txiki"
baina, lehengo garaietara ezin naiz berriro
itzuli
beraz behar ditut lehenbailehen begiak ireki
eta nire mundua eraiki.

Denbora kontrolatu nahiko nuke!
Horrek arazo asko konponduko lituzke.
Ni bere jabe izan,
azken batean mundua neurea izango
litzateke
lasai eta aldi berean presaka bizi,
momentu gozo asko eta ez horrenbeste gazi
eta hainbeste desgrazi
betirako nire munduan hazi,
izan dadila bizitza berezi
benetan duelako merezi.

Denbora aurrera, denbora atzera,
urtaroak joan eta etorri
zein polita den ikustea zuhaitzetan barra-
barra gerezi,
gu ere haien antzera hazten goaz
baina bidean zenbat arantza, belar txar eta
sasi...
gora egingo dut, eta egingo naiz hazi eta
zeruraino iritsi,
gaindituko dut parean jarritako edozein
harresi
Indarra eta bizipoza nagusi,
baina bide luze honetan zenbat oztopo eta
hesi
zenbaitetan bihotzera ere helduz hainbat
gezi,
baina hori ez da nahikoa ni gainditzeko,
gerra oraindik ez baita hasi!
Ez ahaztu norbera izateak daukala sekulako
garrantzi
beraz hori lortu arte ez ezazu inoiz etsi,
lau haizetara zarena zarelako egin irrintzi!